



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2015EKO AZAROAREN 23KO EZ OHIKO UDALBATZA

:

NOIZ: 2015eko azaroaren 23an, goizeko 10:30etan

NON: Ikaztegietako Udaletxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Xabat Ibarguren Lazkano (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK:

1.- 2015eko Gorte Nagusietarako Hauteskunderen mahaiaren osaketaren zozketa.

2.- Mozioa.



- **ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta beraz gai zerrendako gaien azterketari ekiten zaio.

1.- HAUTESKUNDEAK: GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEEN MAHAIAREN OSAKETAREN ZOZKETA.

Idazkariak Hauteskundearen Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 26. artikulua irakurri ondoren, zozketa publikoa egin da, informatika-sistemaren bidez, abenduaren 20ko Gorte Nagusietarako Hauteskundearen mahaian egongo den lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko.

Zozketa horren emaitza behar bezala dokumentatua geratu da espedientean.

Udalbatzarrak, hori ikusita, izendapenaren ekitaldi publikoa onartzea erabaki du, eta Hauteskunde-legearen 27.2. artikuluari jarraiki, dagokion eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinaraziko zaio emaitza, baita izendatutako pertsonen ere, hiru eguneko epean.

2.- MOZIOA.

Miren Mendizabal Macazaga Zinegotziak “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren” aldeko mozioa aurkeztu du.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2015EKO AZAROAREN 23KO EZ OHIKO UDALBATZA

:

Ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten du:

-Mozioa: aldeko 3 boto.

Horrenbestez bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa erabakitzen du:

LEHENENGOA: Onartzea “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren” aldeko mozioa eta erabaki honi eranstea eranskin moduan.

Horrenbestez, arratsaldeko 10:45 orduak direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2015ko urriaren 28an

O.I.
ALKATEA,

Idazkaria,